



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2022KO EKAINAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK** **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko ekainaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Ricardoa Arangoa, M<sup>o</sup> Mar Ansorena, Xabier Azpiroz eta Santos Etxegia.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Olatz Dorai eta Julen Beunza

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Maiatzaren 30eko ohiko batzarreko akta eta maiatzaren 13ko ezohikoa emailaz helarazi zaizkie zinegotziei eta aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

#### **2.- Alkate ebazpenak**

Alkateak orain arte onartutako mozioen laburpena irakurtzen du:

-2022/46 alkate ebazpena onartuz, Juan Luis Azanza Mazo 01347050D NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

- 2022/47 alkate ebazpena onartuz Inma Fernandez Vicuñaak aurkeztutako aitopen ardurtsua eta memoria teknikoa, Beramendiko 1. Poligonoko 83. Lursailean dagoen etxebizitzarako autokonsumorako eguzki plakak jartzeko 4.710,40 euroko aurrekontuarekin-
- 2022/48 alkate ebazpena obra baimena ematea Orokieta Erbitiko Kontzejuari Orokietako 8. Poligonoko 1. Lursailean dagoen eraikinean aterpea egiteko. aurrekontua 23.516,06 euro.
- 2022/49 alkate ebazpena ez onartuz Miguel Loidi eta Peio Mikel Doraik egindako bereizketa baimena, Udabeko 1. Poligonoko 84. Lursaila bi zatitan bereizteko bat 6.322 m<sup>2</sup>tan eta bestea 5.418 m<sup>2</sup>rekin, lursail hauek ez dutelako laborantzako gutxieneko unitatearen azalera betetzen, (10 ha), Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko 1/2022 Foru Legearen 48. artikuluan araututakoaren arabera.
- 2022/50 alkate ebazpena obra baimena emanaz I-De Redes Inteligentes S.A.U. empresari Igoa- Erasun eta Irurtzun Basaburua argi indarra lineak lotzeko proiektua egiteko, 86.002,35 euroko aurrekontuarekin.
- 2022/51 alkate ebazpena onartuz Alberta Clara Gonzalez Pellegrinik egindako eskaera, 2022 urteko zirkulazio zergaren dagokion zatia itzultzeko 7116 BDP matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik, itzuli beharreko kopurua 64,63 eurokoa izanen delarik.
- 2022/52 alkate ebazpena onartuz Felix Garayoa Labianok egindako gainbalioaren zergari lotuta ez egoteko eskaera, Aizarotzko Erdiko Karrika 3 2º ezker helbidean dagoen etxebizitzaren salmentarekin, ikusita, Nafarroako Toki Ogasunen 1995/2 Foru Legea aldatzen duen 2017/19 Foru Legearen 172. Artikuluaren arabera salerosketak ez duela gainbalioa sortu.
- 2022/53 alkate ebazpena onartuz Zulaga Obra eta Proiektuak empresak aurkeztutako aurrekontua Oihanzabal Ikastetxearen inguratze sistema hobetzeko obra egiteko, 17.798,55 eurokoa, BEZ kanpo.
- 2022/54 alkate ebazpena Baimena emanaz Irati Munduate Apariciori , Uztailaren 18, 19, 20 eta 21ean 10:00etatik 11:30etara eta 18:00etatik-19:30etara eta Abuztuaren 1, 2, 3 eta 4an 10:00etatik 11:30etara eta 18:00etatik-19:30etara pilates tonifikazio ikastaroa emateko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

### **3.- Iharduera ekonomikoaren gunearen urbanizazio proiektua. Behin betiko onespina.**

Alkateak azaltzen du, urbanizazio proiektua Apirilaren 13ko ez ohiko batzarrean onartu zela hasiera batez, eta ondoren Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu 2022ko maiatzaren 5ean. 2017/1 Foru Dekretuaren 134. Artikulua jarraituz, 20 eguneko epean egon da espedientea jende aurrean alegaziorik aurkeztu gabe.

Proiektuaren inguruan udaleko arkitektoak txostena egin du eta bertan ondorioztatu du dokumentua bera moldatu beharko litzatekeela, irisgarritasun eta eraginkortasun araudia betetzeko hainbat puntutan eta ere urbanizazioa bukatzean egin behar diren entseguen sare guztien inguruko entseguak eta aukera udalak egokia ikusten badu,

sareak ongi eginak dauden egiaztatzeko kamara batekin egindako ikuskapena egitea ere..

Udal arkitektoaren txostena kontutan hartuz, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin betiko onespena ematea Basaburuko Udalak sustatutako iharduera ekonomikoen gunea sortzeko urbanizazio proiektuari, Alinea Ingenieria enpresak idatzitakoa.**
- **Eskatzea Alinea Ingenieria enpresari proiektua osatzea udal arkitektoaren 22/0263 txostenean zehazten direnetara.**
- **Behin betiko onespena Nafarroako aldikari Ofizialera bidali argitaratua izan dadin, 2017/1 Foru Dekretuaren 134.artikulua jarraituz.**

#### **4.- Iharduera ekonomikoen gunearen urbanizazio obraren esleipenari hasiera ematea.**

Alkateak adierazten du urbanizazio proiektuaren behin betiko onespenerekin obraren esleipenaren tramitazioari hasiera ematen ahal zaiola. Alinea ingenieria enpresakoak prestatzen ari dira urbanizazioko obraren 1.fasearen memoria eta planoak. Jada aurrekontu zehaztua prestatu zuten.

Obrak esleitzeko prozeduraren inguruan idazkariak azaltzen du obraren aurrekontuagatik prozedura ireki bidez tramitatuko dela esleipena.

2018/2 Kontratu Publikoen foru legearen 72.artikuloan zehazten da prozedura ireki bidez edozein enpresak aurkeztu ahal du eskaintza behin Nafarroako Kontratazio Portalean iragarkia jarri ondoren. Horretarako 2018/2 foru legearen 59. artikulua arautzen duenaren arabera baldintza plegua onartu behar da. Plegua zehazten dira kontratuaren xehetasunak, balorazioa, proposamenak aurkezteko epea eta beste...

Kontratuen legearen 91, artikuluan zehazten da proposamena aurkezteko gutxieneko epea 15 egunekoa dela prozedura irekietan aurrekontua Europar langatik beherakoak direnean, bildutakoek 20 eguneko epea finkatzea adosten dute esleipen honetarako.

Gainera ere kontratazio mahaia izendatu behar da proposamenen balorazioa egiteko. Bildutakoek izendapen hauek onartzen dituzte:

- Kontratazio mahaiaren lehendakaria Esther Lacasta eta honen ordezkoa M Mar Ansorena.

Kontratazioa mahaiko bokalak:

1. Bokala: Carlos Cobo, Alinea Ingenieria enpresako kidea eta honen ordezkoa Alinea Ingenieria enpresako Puy ABINZENA
2. Bokala, Xabier Azpiroz eta honen ordezkoa Julen Beunza
3. Bokala, Santos Etxegia eta honen ordezkoa Ricardo Arangoa.

Bildutakoek ere finkatzen dituzte pleguan agertzen diren balorazioak, irizpide ez kuantitatiboek 30 puntu emanaz, kontutan hartuz bertan memoria eta obraren plangintza sartzen behar direla irizpide hauetan 20 punturekin, 10 puntu hurrenez hurren eta irizpide sozial eta ingurugiroarekin lotutakoak 10 punturekin.

Ondoren finkatzen dira irizpide kuantitatiboak, hots proposamen ekonomikoa 50 punturekin eta obraren berme epea zabaltzea 20 punturekin.

Bildutakoek ere erabakitzen dute obraren kartela jartzeko orduan gutxienez euskara erabili behar dutela hizkuntza bezala baita ere obran jartzen diren segurtasun eta lan prebentzio arloan jartzen direnetan.

Derrigorrez ere enpresa bakoitzak justifikatu beharko dute enpresa eta udalaren arteko harremanetarako bitartekariak euskaraz defendatuko dela ahozko harremanetan.

Bukatzeko zehazten dira balorazioa puntu berdina izan ezkerreko ze irizpide erabiliko den oreka hausteko, lehenik eskaintza ekonomikoa txikiena aurkeztu duen enpresaren alde, bigarrenik oreka mantentzen bada, berme epea gehiago zabaltzen duen enpresaren alde eta bukatzeko enpresaren behin behineko kontratazio tasa txikiagoa duen enpresaren alde.

Hau guztia finkatuta, bildutakoek onartzen dute aho batez iharduera ekonomikoaren gunea egiteko urbanizazio proiektuaren 1. faseko baldintza plegua eta 1. faseko memoria eta planoak izan bezain laster iragarkia jartzea Nafarroako Kontratazio Portalean.

Alkateak azaltzen du ere industriagunearen 1. fasea egiteko Industria Atalak onartutako laguntza bat eskatu dela, industriaguneak sortzeko eta egun daudenak berritzeko inbertsioak sartzen dira bertan. Laguntza onartzekotan %30ekoa da.

Laguntza honetarako zehaztu behar ziren lursailen interesdunen kopurua eta lursail bakoitzaren prezioa.

Batzordean adostu bezala industriaguneko lursail bakoitzaren metroaren prezioa 45 eurotan finkatu zen eta behin urbanizazioaren 1. fasearen obran hasten diren zonaldeko enpresa eta autonomoei zabalduko zaie eskeintza eta interesdunen poltsa irekiko.

Hortaz batzordean adostu bezala, bildutakoek onartzen dute aho batez ondoren zehazten den erabakia berrestea:

**-Basaburuko iharduera ekonomikoaren gunean dauden lursailen prezioa m<sup>2</sup> bakoitza 45 eurotan jartzea eta obrak martxan daudenean enpresa eta autonomoei eskeintzea eta publizitatearen interesdunen poltsa egiteko.**

## **5.- Mozioak.**

Alkateak bi mozio daudela aipatzen du onartzeko proposamenarekin, lehenengoa ekainaren 28an ospatu zen harrotasun egunaren ingurukoa eta bestea Melillako hesian ekainaren 24etik 25era gertatutakoaren inguruan.

Alkateak lehenik irakurtzen du LGBT+fobiaren kontrako egunerako EH bildutik jasotako mozioa, eta ondoren transkribatzen dena.

“Maiatzaren 17an, LGBT+fobiaren kontrako egunean esaten genuena errepikatzen dugu Ekainaren 28an, LGBT+ harrotasunaren egunean. Harro gaudelako gure bizitzek, harro gure bizi historiaz, harro LGBT+ mugimenduz.

Komunikabide nagusien estigmatizazio saiakerek eta manipulazioak zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituen honetan, inoiz baina garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea. Stonewalletik Euskal Herria, milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina oraindik egiteko asko dago. Eraso LGBT+fobikoen datuak gora doaz, arriak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtsopatologizatzaileak ugaritzen ari dira... eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.

Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoa, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... ezartzea ezinbestekoa dugu. Anekdotikoak diren politikak alde batera utzi, eta estrukturalak diren horiek erdigunean jartzeko garaia da. Horretan ari gara gobernatzen ari garen hainbat udaletan, eta hori sustatuko dugu ere oposizioan gauden toki guztietan.

Honetaz gain, bat egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan, eta amaitzeko, LGBT+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako. Gure bizitzek balio dutelako, gora Ekainaren 28a!”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Aipatu bezala bigarren mozioa aurreko astean Melillako hesiko gertakarien ingurukoa da EH bildutik bidalitakoa ere onartzeko proposamenarekin.

Alkateak irakurtzen du.

## **“MELILLAKO HESIAREN INGURUAN 2022KO EKAINAREN 24TIK 25EKO GOIZALDEAN GERTATUTAKO SARRASKIA SALATZEKO MOZIOA**

Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan sarraski bat gertatu zen. Behin behineko balantzearen arabera, 37 pertsona hil dira eta askoz gehiago larriki zaurituak izan dira.

Gertaera larri hauek Espainiako gobernuaren migrazio politiken porrotaren adierazpen tragikoa dira. Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen (APDHA) “2021eko Hegoaldeko Mugako Fluxu-Migratorioaren Balantzea”k

berriki emandako datuen arabera, gutxienez 2.126 pertsona hil dira Espainiako Estaturako migrazio-ibilbidean, aurreko urtean baino % 24 gehiago. Hala ere, desagertutako pertsonen kopurua askoz ere handiagoa dela adierazi du erakundeak.

Horrekin batera, ezin dugu alde batera utzi Melillako gertaeren ondoren Espainiako Gobernuko presidentek adierazitako immigrazioaren aurkako diskurtsoa erradikalizatu

egin dela. Bere adierazpenetan, mugaren bi aldeetako polizia-jarduera hilgarriak justifikatzeaz gain, poliziaren lana ezinbestekotzat jotzen da migratzaileek erabiltzen duten indarkeriaren aurrean Estatuaren segurtasunerako, haien jarduera “ondo ebatzitako operaziotzat” jotzen baita.

PSOEk hamarkadak daramatza giza eskubideen aurkako migrazio-politika errepresiboak aplikatzen: atzerritarrei buruzko Legea, CIESak, hegoaldeko mugaren militarizazioa armada bidalita, “lotsaren” zuzentaraua, “beroan” egindako kanporaketak, mugen kudeaketa kanpora ateratzeko Marokorekin sinatutako akordioak, hirugarren herrialdeetako migratzaileak Marokon berriz hartzeko akordioak, Ceuta eta Melillako hesiak, kontzertinak, migratzaileen heriotzak poliziaren eskuetara, adingabeen legez kanpoko kanporaketak...

Horri lotuta, Maroko Espainiaren eta EBren lehentasunezko bazkidea da migrazio-fluxuen kontrolari dagokionez; eta lankidetzaz horrek itsas patruilatze bateratua eta migratzaileen detekzioa eta interzeptazioa gauzatzea suposatzen du.

Migrazioa kontrolatzeko praktikak Marokoko lurralde osoan aplikatzen dira, eta batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdeetatik datozen pertsonak atxilotzen dira, herrialdearen barrualdera modu behartuan lekualdatzeko edota jatorrizko herrialdeetara deportatzeko. Jarduera hori gauatzeko, atxilotze-zentro ez-ofizialak erabiltzen dira, hala nola bunkerrak, eraikin abandonatuak, polizia-etxeetako zorupeak edo eskolak, non azkenean lekualdatuak edo deportatuak izango diren pertsonak atxikitzen diren; izan ere, migratzaileen eskubideen aldeko kolektiboek salatu dutenez, pertsona horiek ez daude prestatuta askatasunaz gabetzeko, eta, beraz, haien baldintzak osasungaitzak eta gaitzesgarriak dira, eta, gainera, tortura fisikoa eta psikologikoa egiten da horietan.

Azkenik, adierazi behar dugu heriotza horien erantzukizuna mugak ixteko migrazio-politika krudel eta anker batzuei dagokiela. Politika horiek ez dira eraginkorrak immigrazioa kontrolatzeko helbururako, eta, gainera, sufrimendu handia eta giza eskubideak etengabe urratzen dituzte. Politika horien bidez, Espainiako Estatuak bere lurralde-osotasuna lehenesten du, migratzaileek askatasunez igarotzeko eta harrera duina eta integrala jasotzeko duten eskubidearen aurrean. Argudio hori erabiltzen du, halaber, Irun eta Hendaia arteko mugan korridore humanitarioak irekitzea ukatzeko, Bidasoa ibaiko tragediak saihestu, eta, horrela, mugak pertsonen aurretik jartzeko.

Guzti hori dela eta, Basaburuko Udalak **ERABAKI DU**:

1.- Ekainaren 24tik 25erako goizaldean melillazko hesiaren inguruan gertatutako sarraskian poliziak izandako basakeria salatzea (behin-behineko balantzean, 37 dira hildakoak eta askoz ere larri zaurituak); eta elkartasuna adieraztea hildako eta zauritutako pertsonen, haien lagunei eta hurbilekoei.

2.- Gertakari larri hauetan Estatuto segurtasun indarren partehartzea salatu.

3.- Mugak militarizatzearen eta kudeaketa kanpora ateratzearen inguruan egun aplikatzen diren migrazio-politikak salatzea.

4.- Pertsona migrante guztien duintasuna eta giza eskubideen errespetua bermatuko dituen legezko bide seguruak irekitzea exijitzea.

5.- Ikerketa independente bat egiteko eskaera luzatzea, gertarakiak argitu eta dagozkion neurriak ezartzeko.

6.- Hildako pertsonen gorpuzkiak berreskuratu, identifikatu eta jatorrizko herrialdeetara aberriratzea exijitzea, familien nahiak errespetatuz.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Gai ordenetik kanpo badago beste gai bat aztergai, Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana (PACES) egiten amaitu denez orain udaletan onartu behar , bildutakoek lehenik aho batez onartzen dute gai ordenean sartzea aipatutako planaren onespena.

### **Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren onespena.**

Alkateak azaltzen du alkateen iturarekin lotuta eta 2030 helburuak lortzera bidean Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana (PACES) egiten amaitu denez orain udal batzarrak onartu behar du.

Irrakurtzen ditu planaren helburuen laburpena eta hartu beharreko akordioa, ondoren transkribatzen dena:

*"Basaburuko Udalak bat egin zuen Alkatetza Itunaren ekimenarekin, udalbatzak hala erabakita 2020ko irailaren 30eko batzarrean..*

*Nafarroako Gobernuaren LIFE-IP NAdapta-CC proiektuak % 100ean finantzatutako ekimen honen bidez, tokiko gobernuek berotegi-efektuko gasak murrizteko helburuekin bat egiten dute, eta klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegi komuna hartzen dute, baita pobrezia energetikoa ere. Konpromisoa honetan datza:*

*1) Berotegi-efektuko gasen emisioak % 40 murriztea gutxienez hemendik 2030era, bereziki energia-eraginkortasuna hobetuz eta energia-iturri berriztagarriak gehiago erabiliz.*

*2) Egoitza handitzea, klima-aldaketaren ondorioetara egokituz.*

*Klima eta Energia Jasangarrirako Plana (PACES) beste udalbarri batzuekin batera egiteko, udal honek Lankidetzaren Hitzarmena sinatu zuen Klima eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plan Bateratua (PACES) egiteko [taldearen izena] (data).*

*Hitzarmen honetan hartutako konpromisoen arabera, NASUVINSA-Lursareak lan teknikoak eta herritarren parte-hartzea zuzendu ditu, Udalekin eta Tokiko Ekintza Taldeekin koordinatuta.*

*Emaitzak sintetikoki biltzen ditu: diagnostiko bat, ekintza-plan bat eta monitorizazio- eta ebaluazio-sistema bat. Gainera, honako hauei buruzko eranskinak ditu: finantzaketa-iturriak, 2005eko kontsumoen eta isurien inbentarioa, 2019ko kontsumoen eta isurien inbentarioa, 2019ko udal-kontsumoen txostena, kalteberatasun- eta arrisku-fitxak eta bestelako dokumentazio teknikoa.*

*Ekintza-planak 8 jarduera-ildo ditu:*

- 1. Ekintza klimatikoa Administrazioetik*
- 2. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarria*
- 3. Mugikortasun iraunkorra eta zero emisio*
- 4. Klima-aldaketari egokitutako hirigintza*
- 5. Hondakinak prebenitzea eta kudeatzea eta ekonomia zirkularra bultzatzea*
- 6. Ingurune naturala, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza*
- 7. Uraren kudeaketa integrala*
- 8. Klima-aldaketarekin lotutako gaixotasunak eta osasunaren gaineko ondorioak prebenitzea*

*Jarduera-ildo bakoitzak ekintza batzuk eta ekintza bakoitzaren deskripzio-fitxa bat biltzen ditu.*

*PACEsek udalak onartu ondoren, (udalerraren izena) Udalak badu bere ibilbide-orria datozen urteetan bere ekintza klimatikoa hedatzeko.*

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana onartzen dute eta erabaki hau Cederna Garalur entitateari jakinaraztea agindu.**

## **6- Batzordeen informazioa.**

### **Garapen Batzordea. Ricardo Arangoak ematen du informazioa.**

Eskualdeko plan estrategikoaren inguruko azken bileran industriaren arloa landu zen. Udalak bakoitzak azaldu zuen industriarekiko bakoitzaren egoera eta egitasmoak. Enpresak eta udalak elkartzea garrantzitsutzat jo zen eta bilera horien dinamizazioa eta bertatik ateratzen diren ideia eta ekarpenekin diagnosis egingo du teknikari batek



### **Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Tokiko azpiegitura planerako memoriak aurkezteko kontzejuak jarri dira jada harremanetan udalarekin, hain zuzen ere urarekin lotutako obrak egiteko Orokieta Erbiti eta Gartzarongo kontzejuak, uraren eskumena udalak eramaten duenez udalak aurkeztuko ditu memoria eta diru laguntza eskaera hauek.

### **7- Informazio orokorra**

- Osasun Programetarako eskatutako laguntzaren onespena. Osotara onartutako 1.827 euro dira, emakume eta haurren programetara bideratuak 1103 eta 724 euro hurrenez hurren.
- Lurralde Kohesio Departamentuak jakinarazi du zenbateko ekarpena egingo dion udalari JEZ zerga bere osotasunean ez kobratzeagatik. 10.492, erdia 2022.urtea kobratzeko.
- Haur eskolako greba bertan behera gelditu da ekainaren 30eko datarekin. Haur eskolak oporrak hasten dituzte eta bitarte honetan NGak eta udalek lortu dituzten ekarpen ekonomikoekin konpromezua da soldatak eguneratzea eta errefortzuko langileak kontratatzea.
- Aizarotz kontzeju eratzeko aurkeztu beharreko txosten ekonomikoa prestatzeko aholkularitza batek (Iniciativas Innovadoras) aurkeztutako aurrekontua onartu zen alkate ebazpen bidez 4.235 eurokoa.

### **8. Erregu-galderak**

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:05 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.